

# BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

## Euskaldunen artean ETB-1 da iritzirik onena jasotzen duen telebista



*Super bat saioari esker ETB-1 lider da Euskal Herriko haur eta gaztetxoan artean Super batek 50.000 bazkide ditu*

Hamabi urte bete dituen honetan, ETB-1 da euskaldunen artean iritzirik onena jasotzen duen telebista. Bere bidea asmatu guran hamaikatxo aldaketa eta bost zuzendari orokor izan dituen telebista kate hau, egindako ikerketa guztien iritziz, urtetik urtera modu nabarmenean finkatzen eta hobetzen ari da.

Herritarrei informazioa eta entretenimentua eskaintzeaz gainera, euskararen normalkuntza izan da ETBren helburuetarik garrantzitsuenetakoa.

ETBren bidez euskararen batasunak sekulako bultzada hartu du, euskara bera bizitzaren arlo guztietan -kirola dela, telesaioak direla, albistegiak, musika saioak, dokumentalak...- erabiltzen eta garatzen da eta Euskal Herriko egongela gehienetan du sarrera, nahi duenarentzat. Dagoeneko gaztetxoek bere gogoko telebista egin dute ETB-1. Ez da harritzekoa, ETB-1 baita European haur

programaziorik zabalena duen telebista.

Kirolak eta gazte-saioak dira oraingoz saiorik ikusienak. Hala ere, eremu eta ikusle berriak ari da aurkitzen. Euskal Herrian egindako Goenkale telesaioak adibidez, sekulako jendetza erakarri du prime time deitzen den horretan, gainerako telebistekin, publiko zein pribatuekin, lehian.



*Goenkale fenomeno soziologikoa bilakatu da oso denbora laburrean. Era eta adin desberdinetako jendeak ikusten du ETB-1en serie hau: haurrak, gazteak, nagusiak, euskaldunak, ia-euskaldunak. Neurketa etxetik kalkulatu dutenez, astero 450.000 lagunek ikusten dute Arralden kokatzen den telesaioa. Euskara bizikoa, Goenkalek ospetsu egin du seriean lan egiten duen aktore taldea.*

# Argitxu Noblia, Iparraldeko ikastolen ama

Argitxu Noblia, 52, Angelun jaio zen, Lapurdin. Gurasoek susperturik -aitak Boli Kostan (Afrikan) ikasi zuen zein garrantzizkoa den nor bere erroak maitatzea-, gazetandik landu zuen euskararekiko atxekimendua.

Bordelen medikuntza ikasten ari zela Enbata mugimendu abertzalea sortu zuen beste gazte batzuekin batera.

Medikuntza Orokorra egin ondoren, Anestesia eta Bizkortzea, Nekazaritza Medikuntza eta Psikologia

espezialitateak egin bitartean Argitxu Noblia Amezketako gazte batekin ezkondu zen eta sei seme izan zituen. Semeak euskaraz hazi nahi eta, euskal eskolarik ez zegoenez, irakasle bat hartu, haur zenbait bildu eta euskarazko lehen ama eskola eratu zuen. Bera dugu, beraz, gero

Seaska ikastolen elkarte izango zenaren sortzailea. Sei urtez zuzendari moduan eta beste hogeituz urtez guraso gisa egin du lan



Argitxu Noblia

Seaskan.

Mediku lanetan segitzen du Baionako Seguritate Sozialean. Duela bost urte Baionako zinegotzi hautatu zuten independente gisa RPR eta UDF alderdiek eginiko batasunean. Baionako Herriko Etxean osasunaz, kulturaz eta hezkuntzaz arduratu da. Bere lana ezinbestekoa izan da Baionan diru publikoz

finantziaturiko lehen ikastola irekitzeko.

Urtarrilaren 23an Frantziako Gobernuak ematen duen Le Grand Prix Humanitaire delakoa jasoko du Baionako Herriko Etxean, bere bizitzan zehar borondatez egindako lan eskeragatik.

## Hiztegiak eta teknologia berriak

Euskara eta teknologia berriak geroz eta uztartuago daude. Hor dira lekuko oraintsu agertu diren bi hiztegiak.

- *Atzekoz Aurrera* deitzen da UZEIk argitara eman duen azken hiztegia. Hitzen bukaeran oinarritzen da eta liburuan ezezik, ordenadorean ere - Windows eta Mac sistemetan-kontsulta daiteke, salgai jarri diren disketeak erabiliz gero.

- Iaz liburuan argitaratu zen *Europa Hiztegia* CD-ROM formatoan etorri zaigu orain, Adorez taldearen eta Aurten Bai Fundazioaren elkarlanari esker. Euskara-euskara hiztegi hau 1.500 argazkiz hornitua dator, hitzak bilatzeko sistema desberdinak ditu, sinonimoen hiztegia ere badu eta berben jatorri etimologikoa edo kategoria gramatikala jakiteko ere erabil daiteke. 10.000 pta.tan eros liteke edozein liburutegian.

## Eroski-euskara

**konpromezua.** Eroskik 25 urteko ibilbidean sendotu egin du euskararekin duen konpromezua. Bere 25. urtemugaren kariaz eraturako ekintzek ere hori erakusten dute, euskara denetan egon baita present eta egoki. Abenduaren erdialdean Banaketa eta Kontsumoko Hiztegia aurkeztu zuen, janari eta edarien lehen hiztegi terminologikoa.

## Nafar Parlamentuko boletina euskaraz.

Urriaren 14an hasi zen argitaratzen lehen aldiz Nafarroako Parlamentuaren Boletin Ofiziala euskaraz. Aurrerantzean bada, 1986an onartu zen Euskararen Legeak agintzen duen bezala, Nafarroako Parlamentuaren Boletin Ofizialaren bi edizio argitaratuko dira aldi berean: euskaraz bata (100 alekoa) eta gaztelaniaz bestea (500 alekoa).

## Euskal zinema

**Lekeition.** Abenduaren 7tik 10era bitartean Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bileraren XVII. edizioa egin da. Super 8 formatoan filme bat aurkeztu zen; bideoan, berriz, 16. Dokumentalak, argumentozko filmeak eta gai librekoak saritu dira. Lekeitioko Euskal Zinema eta Bideo Bilerak lau milioi pezetako aurrekontua du eta euskara hutsez egiten den zinemaldi bakarra da.

## Munduko literatura

**euskaraz.** Eusko Jaurlearitzaren Kultura Sailak katalogo orokor bat argitaratu du, 1990etik hona Literatura Unibertsala bilduman euskarara itzuli diren liburuen berri ematen duena. Lau urtetan 36 liburu euskaratu eta argitaratu dira. Beste 25 bidean daude. Denetara 23 itzultzaile ari dira lan honetan. Twain, Stevenson, Tolstoi, Camus, Woolf, Goethe, Joyce etabarren lanak itzuli dira.

# EHUko irakasle elebidunak prestatzeko programak

Hamazazpi graduatuondokok burutu dute Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak 1993an sinatu zuten irakasle elebidunak prestatzeko formazio programa.

Proiektu, bana landu behar izan dute hamabi hilabetetan zehar, proiektu bakoitzari dagokion jakintza arloko euskarazko irakaskuntzan erabilgarri diren euskarazko materialak prestatuz.

Hasierako hogeita bi graduatuondokoetatik bostek uko egin diote formazio programari lana aurkitu dutelako, irakasle plazak lortu dituztelako edo bestelako dirulaguntzak eskuratu dituztelako.

Programaren bukaeran garatutako ekintzei buruzko oroitidazki bana aurkeztu dute, prestatutako dokumentazio eta material guztia erantsita.

Hamazazpi graduatuondokoek honako sailetan burutu dute

formazio programa:

- Estratigrafia, Geodinamika eta Paleontologia: Koldo Núñez.
- Biologia Zelularra eta Morfologi Zientziak: Clara Rodríguez.
- Ekonomia Aplikatua III: Iñaki Aurrekoetxea eta Ainhoa Ogiza.
- Fisiologia: Javier Gil eta M<sup>a</sup> Luisa Hernández.
- Polimeroen Zientzia eta Teknologia: Aranzazu Unanue.
- Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia: Olatz Arbelaiz eta Elena Lazkano.
- Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala: Ana Zelaia.
- Lengoia eta Sistema Informatikoak: Antonio Altuna.
- Pintura: Augusto Zubiaga.
- Zuzenbide Zibila: Nekane Ruíz.
- Landare Biologia eta Ekologia: Idoia Biurrun, José M. Estavillo eta Karmele Duñabeitia.

Formazio programaren kostoa 30.360.000 ptakoa izan da.

**Arturo Elozegi, 32**, irakasle tolosarrak CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgazio Saria irabazi du Ugal-estrategiak: sexua joku ebolutiboan lanarekin. Biologian doktorea, Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean Ekologia irakasten du.

**Erramun Baxok, 65**, Filosofiako doktore suhuskundarra, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeke lehendakari berria da. Quebecen hogeitaz irakatsi eta gero Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako campusean Hizkuntzalaritza Aplikatua irakatsi du. Pizkundea federakundearen idazkaria da.

**Jon Arretxe, 31**, idazle basauritarrak Beasaingo Udalak eta CAF enpresak eraturiko Igartza Abentura eta Misteriozko Nobela Saria irabazi du, Tubabu izeneko nobelarekin. Hurrengo hilabeteetan Elkar argitaletxeak argitaratuko du nobela saritua.

## Argitalpenak

### Hizkera Argiaren Bidetik

HAEE/IVAPek argitara eman duen liburu honetan gomendio sorta ederra ematen da euskal administrazioan egiten diren izkribuak orain artekoak baino askoz ere argiagoak eta ulerterragoak izan daitezen herritarrentzat. *Udal Espedienteak* eta *Administrazio Idazkiak* liburuekin irekitako bidearen segida da hau.



EUSKARAREN BERRIPAPERARA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

**Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia**  
Wellingtongo Dukea, 2  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz  Gazteleraz

Izen-deiturak: .....  
.....  
Helbidea:.....  
.....  
Herria: .....  
Kodea: .....  
Lurraldea: .....  
Tel.: .....

## Galdezka

### Euskal komunikabideak

**G**• Zein da euskal komunikabideen egiteko gure gizartean?

**E**• Pertsonaren nahiz gizartearen bizitzan harremana eta komunikazioa ezinbestekoak dira. Euskal nortasuna osatu, garatu eta indartuko bada, komunikazio hori euskaraz bideratzeko bideak zabaldu egin behar dira.

Gizartearen berezko eta beharrezko mezularia, mandataria eta bitartekaria da kazetaria. Kazetarien bidez komunikatzen dira gizarte honetako gizon-emakumeak elkarrekin. Gizartearen batasunaren eta pluraltasunaren oinarri dira, hein handian. Eta euskal kazetariok, han eta hemen barreiatu eta erdaldunez inguraturik dauden euskaldunen mezulari dira, euskaldunen batasunaren eta aniztasunaren euskarri, euskaldunek euskaraz bizitzeko duten lagun bakarra askotan.

**M. Karmen Garmendia.**  
Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia

### "Bertan" euskaltegiek ia 12.000 ikasle

Zer da Bertan? Helduak alfabetatzeko eta euskalduntzeko esparruan lanean diharduen hainbat euskaltegi homologatuk 1992an sortu zuten elkarte. Elkartearen helburuak atxekitutako euskaltegi homologatuen lana bateratzea da, EAetik kanpo lanean ari diren beste euskaltegiarekin ere elkarlana bultzatzea, irakasleak prestatzea, lan horietan diharduen edozein pertsona zein erakunderen aholkulari izatea eta euskararen irakaskuntzarekin zerikusirik duten lanak argitaratzea.

Bertan elkarteak 15 euskaltegi biltzen ditu: 2 Araban, 4 Bizkaian eta 9 Gipuzkoan. Horietatik sei kultur elkarte desberdinen jabetzapekoak dira;

beste bederatzia irakasleek sortutako kooperatibak.

1993-94 ikasturtean 11.800 ikasle izan dira euskara ikasten edo lantzen Bertan elkarte osatzen duten euskaltegietan. Alfabetatze eta euskalduntzearen sektore osoan eman diren ikasle-orduen %27 Bertan elkartearen euskaltegietan eman dira.

Ikasturte honetan 368 irakasle dihardu esandako euskaltegiotan.

Hamabost euskaltegi hauek aurtengo maiatzean HABE-rekin sinatu berri dute hiru ikasturtetan euren egoera normalizatzeko ituna: bai didaktika aldetik eta bai giza eskakizunen aldetik, HABEK horretarako diru laguntzaren modulua eguneratuko du.

### ✓ Kontutan hartzeko

• • **Expolangues Parisen.** Munduko hizkuntzei buruz egiten den erakusketa urtarrilaren 27tik otsailaren 1era luzatuko da. Euskararen erakusketa, ohi bezala, Eusko Jaurlaritzaren HPINek eta Nafarroako Gobernuaren HPZNeK prestatu dute elkarrekin.

• • **Gipuzkoako Urrezko Domina Euskaltzaindiari.**

Urtarrilaren 27an Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Urrezko Domina emango dio Euskaltzaindiari euskararen alde egin duen lanagatik. Urrezko Domina -Gipuzkoako kondekoraziorik garrantzizkoena- emateko ekitaldia arratsaldeko 5.00etan izango da, Diputazioko Tronu Aretoan. Demokrazia ezarri zenetik sei aldiz eman da urrezko domina.

**EUSKO JAURLARITZA**

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA  
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



**GOBIERNO VASCO**

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA  
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA

